


PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Klasean geundela, proiektu bat egin behar genuela komunikatu ziguten, horretarako gatazka batzuen ideiak hartuz, proiektu bat aurrera ateratzen saiatzen ari gara.



Gure taldeko partekide batek, gaixotasun zeliakoa du, eta jatetxe batera joaten den gehienetan, arazo berdinarekin topatzen da, ez dakiela zer elementuz konposatuta dagoen ahora eramaten duena, batzuetan, menuko kartan jartzen ditu plater horrek dituen osagaiak, (marrazkien bidez), baina beste askotan ez dizute informaziorik ematen zuk ezer galdetzen ez baduzu.

Jada, badago jende asko zeliakoa dena, Zeliako gaixotasuna, Glutenarekiko alergiaren ondorioz hesteetako mukosan lesioak sortzen dituen asaldura kronikoa da.

Garian, zekalean, garagarrean eta neurri txikiagoan oloan dagoen gliadinaren α frakzioaren kontrako erreakzioak eragiten du gaixotasuna. Gaixo hauek artoa, artoa eta soia ondo onartzen dituzte hazi horietan ez dagoelako erreakzioa sortarazten duen gliadinaren proteina. Gaixotasuna tratatzeko modu bakarra eliminazio dieta da, hots, bizi den artean glutena dietatik ezabatzea.

Bitzaren edozein unetan ager daiteke gaixotasun hau. Paziente sintomatikoetan emango dira beherakoak, gorakoak, zurbiltasuna eta masa muskularraren gutxitzea. Hestea kaltetuta dagoenez, paziente hauetan ohikoa da elikagaien xurgapenean akatsak izatea, eta gabezia nutrizionalak eman daitezke. Gabezia horiek haurretan hazkundearen atzerapena sortaraz dezake.

Arao horri konponbidea emateko, honako proiektua aurrera eramatea erabaki dugu. Gure objektua, zeliakoentzako test-portable (haurdinaldiak forgatzeko test modukoak) antzeko bat da, non zeliakoek edozein elikagai, haren aurreko partean jartzen duten eta glutena duten osagaiak detektatzen ditu, glutena badu, argitxo edo markatxo bat aterako da pantailan, konposatuetan glutenik agertzen ez bada, pantailan ez da ezer ez aterako.

Objektu hau saltzeko, web orrialde bat sortuko dugu. Webgunea hizkuntza ezberdinetan egitea pentsatu dugu, test portableak denontzako eskuragarri egoteko. Farmazietan eskuragarri egongo dira, internet bidez erosten ez duenarentzako eta baita ere, enpresekin harremanetan jarriko gara, horrela, jatetxe edo dendetan eskatuz gero egotea errazagoa izango da.

Zerbait identifikatzen duena: Antigenoa

Antigorputza: Hormonari erreakzioa egiteko eta haren kontra joateko.

Proiektu hau, haurdunaldiaren testa bezalako da, non elikagai bat test portabilearen puntan jarri eta antigorputzei esker, glutena duten edo ez jakin dezakegun eta hori izango da lagunduko diguna.

Glutena , proteinen konjuntio bat da eta konjuntio hori elikagai askotan aurki dezakegu..

Antigenoak, gorputz hori ezagutzeko balio diguten substantzia guzti horiek dira. Antigorputzak, bakteriaren kontra joan baino lehen, "bakteriak " identifikatu behar ditu. Behin antigenoei esker identifikatzean, antigorputzak elementu hauei aurre egiteko lan egiten dute, haren kontra egiteko, lehenengo ezagutu egin behar du zelula.

Proteina gorputzean sartzen denean, antigorputzek kontra egiten diote, badakitelako hori ez dutela toleratzen.

Test portabilean, antigorputzak prest egongo dira, tira erreaktibo batzuk egingo ditugu non elementua horren gainean jartzen denean, erreakzio bat egongo den.

Hau erabilgarria izan dadin, kit moduko bat egitea pentsatu dugu, non pipeta bat egongo den, test portabile antzeko hori eta pintza batzuk egongo dira elementu solidoentzako. Kontuan eduki behar dugu, aurreko atala, erabiltzeko eta zaborretara botatzeko sortuta dagoela, behin erabili dugunean ez baituelako berriro erreakziorik sortzen. Orduan 10-20 aurrealdeko pack-ak egingo ditugu.